


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentek % 0,8 egin zuten gora, 2018ko lehen hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, txikizkako merkataritzak % 0,6 egin zuen gora, prezio finkoetan

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 0,8 handitu zituen salmentak, prezio finkoetan, 2018ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Sektorearen salmentek, gasolina-zerbitzuguneak aintzat hartu gabe, % 0,6 egin zuten gora, urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, salmenta-indizeak % 0,1eko igoera erreala izan du, urtaroren arabera eraginak ezabatu ondoren.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreen arabera, elikagaigintzak % 2,9 areagotu zituen salmentak 2018ko lehen hiruhilekoan, gainerako produktuen txikizkako merkataritzak % 1,3 egin zuen behera eta automobilgintzarako erregaiaren salmentak % 2,5 gora. Hori guztia, 2017ko aldi beraren aldean eta prezioen efektua kendu ondoren.

Elikagaigintzaren txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatuak % 4,2 egin zuen behera, eta elikagaiak nagusiak diren ez-espezializatuak % 5,6 egin zuen gora.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan aldakuntza positiboak izan ziren etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritzan (% 1,8 egin zuen gora) eta pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritzan (% 0,1 egin zuen gora); ordea, merkataritza ez-espezializatuak, gainerako produktudunak bereziki, % 5,6 egin zuen behera eta beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatuak % 3,5, guztiak prezio finkoetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. I/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	0,8	0,1
Araba/Álava	2,3	1,1
Bizkaia	0,8	-0,2
Gipuzkoa	0,2	0,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	2,9	1,1
Elikagaietan espezializatuta	-4,2	-0,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	5,6	1,4
Beste produktuak	-1,3	0,0
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	0,1	-0,5
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	1,8	1,2
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-3,5	-1,7
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-5,6	-0,6
Automoziorako erregaia	2,5	0,6
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,6	0,5
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	0,2	-0,2

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Lurraldeen arabera, igoera erregistratu da hiru lurraldeetako urte arteko salmentetan. Araban, % 2,3; Bizkaian, % 0,8; eta Gipuzkoan, % 0,2, termino errealetan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Arabak % 1,1eko igoera izan du, Gipuzkoak % 0,1ekoa eta Bizkaia % 0,2ko beherakada.

Euskal AE osoan, 2017ko laugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean okupatuen kopurua % 0,2 jaitsi da 2018ko lehen hiruhilekoan; % 0,2 hazi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62